BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3856

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 27koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, 1123/11 prozedura arruntari buruzko administrazio-espedientea bidaltzea xedatu eta interesaturik egon daitezkeenak epatzen dituena.

1123/11 administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokion espedientea –prozedura arrunta– bidaltzeko eskatu du Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak. Errekurtso hori Justizia eta Herri Administrazio sailburuak 2011ko martxoaren 1ean emandako Aginduaren aurka jarri zen. Inpugnaturiko Aginduak ezesten zuen Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak, 2010eko apirilaren 16ko aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan karrerako funtzionario izateko deitu zituen hautaketa-prozesuetako epaimahaiak urriaren 27an hartutako akordioen aurka interesdunak jarri zuen gora jotzeko errekurtsoa.

Aurreko errekurtsoaren zergatia, epaimahai kalifikatzaileak hautaketa prozesuetako lehenengo eta bigarren proben behin betiko emaitzei buruz eta informatika ezagutza egiaztatzeko erari buruz, 2010eko urriaren 27an hartutako akordioak dira.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatuta, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak eskatutako administrazio-espedientea bidaltzea.

Bigarrena.–Aipatutako espedientean interesen bat izan dezaketenak epatzea, bederatzi eguneko epean ager daitezen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salara, 1123/11 prozedura arruntean alderdi modura aurkezteko aukera izan dezaten.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, www.ivap.euskadi.net/ope helbide elektronikoan eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen iragarki tauletan argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 27a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.